LEKEITIOKO TRINKETE ETXEAREN ADMINISTRAZIO- EMAKIDAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN AGIRIA	PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS QUE REGIRÁ LA CONTRATACIÓN DE LA CONCESIÓN ADMINISTRATIVA DEL TRINKETE ETXEA DE LEKEITIO
Prozedura: Irekia **Sistema: Hainbat irizpide** **Kontratu mota: Erreserbaturik** **Kontratu erreserbatua gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua) eta gizarteratze-enpresentzat (abenduaren 13ko 44/2007 Legea)**	**Procedimiento: Abierto** **Sistema: Varios criterios** **Tipo de contrato: Reservado** **Contrato reservado para Centros Especiales de Empleo de iniciativa social (Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre), y empresas de inserción social (Ley 44/2007 de 13 de diciembre)**
I. EMAKIDAREN XEDEA Kontratazio honen xedea Lekeitioko Trinkete-Etxearen administrazio-emakida da (Eusebio María de Azkue kalea 5, Lekeitio). Agiri honetan oinarrituta egiten den kontratuaren xedea izango da Lekeitioko Trinkete-Etxearen eraikinean dauden aterpetxea eta taberna kudeatzea, ustiatzea eta dinamizatzea, bai eta eraikin horretan dauden kirol-instalazioetarako sarrera harrera egitea eta kontrolatzea ere. Emakidari atxikitako betebeharrak honako hauek dira: a) Emakidaren xedea emakidaren indarraldian erabiltzea eta kudeatzea, eta indarraldia amaitutakoan Udalari itzultzea mantentze- eta garbitasun-baldintza onenetan. Kudeaketak barnean hartzen ditu aterpetxeari lotutako zerbitzuak ematea	**I.- OBJETO DE LA CONCESION** Constituye el objeto de la presente contratación la concesión administrativa del Trinkete-Etxea de Lekeitio, ubicado en la calle Eusebio María de Azkue 5 de Lekeitio. El contrato que en base al presente pliego se formalice, tendrá por objeto la gestión, explotación y dinamización del albergue y el bar situados en el edificio del Trinkete-Etxea de Lekeitio, así como la recepción y el control de acceso a las instalaciones deportivas situadas en dicho edificio. En consecuencia, como deberes inherentes a la propia concesión, se señalan: a) Usar y gestionar el objeto de la concesión durante su vigencia, debiendo devolver el objeto al Ayuntamiento en perfectas condiciones de mantenimiento y limpieza a su conclusión. La gestión implica la prestación de los servicios inherentes al

(Baldintza Teknikoen Agiriaren arabera) eta eraikinean dagoen udal ekipamendu publikora sartzeko kontrola egitea. b) Bere funtzionamendurako kontratuaren objektua hornitzea (beharrezkoa den ekipamendua jartzea), hau da, eraikina eta tabernako negozioarekin baldintza teknikoen pleguan jasotzen diren altzariak baino ez dira entregatzen. Inbentarioan agertzen ez den guztia, beharrezkoa izatekotan, persona edo erakunde esleipendunak eman edo jarri beharko du. c) Ekipamendua ondo erabili ahal izateko behar diren materialak hornitzea, Baldintza Teknikoen Pleguan jasotzen den legez. Hau guztiau Baldintza Teknikoen Agirian jasotzen dena betetzen.	albergue (según Pliego de Prescripciones Técnicas) y el control de accesos al equipamiento público municipal del edificio. b) Equipar el objeto de contrato (suministrar el equipamiento que se requiera), para el funcionamiento, ya que el edificio y el negocio de bar se entregan sólo con el mobiliario recogido en el Pliego de Prescripciones Técnicas. Todo lo no incluido en el inventario, y que pueda ser necesario, deberá aportarse por la persona o entidad adjudicataria. c) Suministrar los materiales necesarios para el buen funcionamiento del equipamiento, según consta en el Pliego de prescripciones técnicas. Todo ello con respeto al Pliego de Prescripciones Técnicas.
II. KONTRATUAREN ARAUKETA ETA IZAERA **a) Arauketa orokorra** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2.d) eta l) letretan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratu honi honako hauek aplikatuko zaizkio: • Administrazio Klausulen Agiri hau, eta Baldintza Teknikoen Agiria. • Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko, 7/1985 Legea; Toki araubideko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua; Tokiko Korporazioetako	**II.- REGULACIÓN DEL CONTRATO Y NATURALEZA** **a) Regulación general** De conformidad con lo establecido en el art. 25.2.d) y l) de la Ley 7/85, Reguladora de las Bases de Régimen Local, será de aplicación al presente contrato: • El presente Pliego de Cláusulas Administrativas, y el de Prescripciones técnicas. • La Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, el Real Decreto 781/86, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, Reglamento de Servicios de las

Zerbitzuen Erregelamendua, 1955eko ekainaren 17koa, eta bat datozen gainerako araudiak, gaiari buruzkoak. • 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, eta gainerako legedi aplikagarria, administrazio-kontratuei buruzkoa edo, aurrekorik eduki ezean, zuzenbide pribatuko araudiak.	Corporaciones Locales, de 17 de Junio de 1955 y demás disposiciones concordantes en la materia. • La Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, y demás legislación aplicable a la materia de contratos administrativos y, en su defecto, las normas de derecho privado.
b) Kontratuaren izaera Agiri honen xedea den kontratua, zerbitzu-emakidako kontratua da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 15. artikuluak horretarako eskatzen duena betetzen duelako. Izan ere, kontratuaren xedea honako hau izatea eskatzen da: "halako kontratu bat da, non haren indarrez botere adjudikatzaile batek edo batzuek kostu bidez adjudikatzen baitiete pertsona bati edo batzuei, naturalak zein juridikoak izan, zerbitzu bat –botere adjudikatzaile horien titulartasunekoa edo eskumenekoa– kudea dezaten, haren ordaina izanik edo kontratuaren objektua diren zerbitzuak ustiatzeko eskubidea, edo eskubide hori izatea eta harekin batera prezio bat jasotzea".	**b) Naturaleza del contrato** El contrato objeto de este Pliego es un contrato de concesión de servicios, por cumplir lo requerido a tal efecto por el Artículo 15 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, ya que su objeto consiste en "uno o varios poderes adjudicadores encomiendan a título oneroso a una o varias personas, naturales o jurídicas, la gestión de un servicio cuya prestación sea de su titularidad o competencia, y cuya contrapartida venga constituida bien por el derecho a explotar los servicios objeto del contrato o bien por dicho derecho acompañado del de percibir un precio."
c) Erreserbatutako kontratua Kontratu hau erreserbatua da, SPKLren laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera. Ondorioz, erreserbatutako kontratuen lizitazioetan parte hartu ahal izango dute: • Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lege Orokorraren testu bateginean araututa dauden gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak, Enplegu Zentro	**c) Contrato reservado** Este contrato tiene carácter reservado, de acuerdo a lo dispuesto en la Disposición adicional cuarta de la LCSP. En consecuencia, podrán participar en las licitaciones de contratos reservados: • Los Centros Especiales de Empleo de iniciativa social que estén regulados en el texto refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, y constituidos y

Berezien Erregelamendua onartzen duen abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuaren arabera eratu eta erregistratutakoak, eta • Laneratzeko enpresen araubidea arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako laneratzeko enpresak; dagokien erregistroetan inskribatuta egon beharko dute, aplikatu beharreko araudiaren arabera.	registrados conforme al Real Decreto 2273/1985, de 4 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de los Centros Especiales de Empleo, y • Las empresas de inserción reguladas en la Ley 44/2007, de 13 de diciembre, para la regulación del régimen de empresas de inserción, que deberán estar inscritas en los registros correspondientes conforme a la normativa de aplicación.
d) Ondasunaren tokiko izaerari loturiko erregulazioa Entitate Lokalen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Legearen 74. artikuluarekin bat, jabari eta erabilera publikoko ondasunak erabiltzean atal horren xedapenak bete beharko dira, halako moduz non jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa administrazio-emakida behar duen (78. artikulua). Horrela, 78.2 artikuluak jasotzen duenez, “emakidak lizitazioa egin ondoren egingo dira, hurrengo artikuluekin eta toki-korporazioen kontratazioa arautzen duen araudiarekin bat”. Bestalde, 79. artikuluak zehazten duenez, “emakida edo baimena batek inola ere ezin izango du mugarik gabeko iraupenik izan. Emakiden iraupena, gehienez ere, laurogeita hemeretzi urtekoa izango da, araudi bereziak iraupen laburrago bat ezartzen ez badu". Baldintzei dagokienez, 80. artikuluak dio, deuseztasun-zigorpean (81. artikulua), “jabari publikoko ondasunen emakida guztietan, emakida horiek egiteko	**d) Regulación derivada de la naturaleza local del bien** Tal y como afirma el artículo 74 del Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales (RBEL), la utilización de los bienes de dominio y uso público se regirá por las disposiciones de esa sección, de tal forma que está sujeto a concesión administrativa el privativo de bienes de dominio público. (Artículo 78) De esta forma, “las concesiones se otorgarán previa licitación, con arreglo a los artículos siguientes y a la normativa reguladora de la contratación de las Corporaciones Locales”, según recoge el artículo 78.2. Por otra parte, el artículo 79 matiza que “en ningún caso podrá otorgarse concesión o licencia alguna por tiempo indefinido. El plazo de duración máximo de las concesiones será de noventa y nueve años, a no ser que por la normativa especial se señale otro menor.” En relación a su condicionado, el artículo 80 dice que, so pena de nulidad (art. 81), “en toda concesión sobre bienes de dominio público se fijaran las cláusulas

klausulak ezarriko dira, hain zuzen, komenigarritzat jotzen direnak galarazi gabe, honako hauek: 1. Emakidaren xedea eta hartzen dituen mugak. 2. Behar izanez gero, interesatuak egin beharko lituzkeen obra eta instalazioak. 3. Erabiltzeko epea, luzaezina izango dena, araudi berezian ezarritakoari kalterik sortu gabe. 4. Adjudikaziodunaren betebeharrak eta ahalmenak, udalari eta berak hartuko lituzkeenari dagokionez. 5. Erabileraren bitartez jendearentzako tarifapeko zerbitzu pribatuak eskaini beharko balira, horretarako arauzkoak izango liratekeenak, eratzeko faktoreak zatikatuta, etorkizuneko berrikuspenen oinarri gisa. 6. Laguntzarik emango balitzaio, haren mota eta kopurua, epeak eta interesdunari emateko era. 7. Toki erakundeari eman beharko liokeen kanonak tasaren izaera izango du. Adjudikaziodunak edo baimena duenak ordaindu egin beharko ditu ondasunei edo horiek erabiltzen diren zerbitzuei edo erabilera orokorrari eragin ahal dizkieten kalteen eta galeren zenbatekoa. 8. Erabiltzen den jabari publikoko zatia eta, kasua hala balitz, egin litezkeen obrak egoera onean zaintzeko obligazioa. 9. Epea amaitzean obra eta instalazioak itzultzea edo ez. 10. Korporazioak bertan behera utz dezake emakida epemuga baino lehen, gertatutako interes publikoko zirkunstantziek justifikatzen badute, eragindako	con arreglo a las cuales se otorgare, y sin perjuicio de las que se juzgaren convenientes, constaran estas: 1.ª Objeto de la concesión y límites a que se extendiere. 2.ª Obras e instalaciones que, en su caso, hubiere de realizar el interesado. 3.ª Plazo de la utilización, que tendrá carácter improrrogable, sin perjuicio de lo dispuesto en la normativa especial. 4.ª Deberes y facultades del concesionario en relación con la corporación y las que esta contrajera. 5.ª Si mediante la utilización hubieren de prestarse servicios privados destinados al público tarifables, las que hubieren de regirlos, con descomposición de sus factores constitutivos, como base de futuras revisiones. 6.ª Si se otorgare subvención, clase y cuantía de la misma, plazos y formas de su entrega al interesado. 7.ª Canon que hubiere de satisfacer a la entidad local, que tendrá el carácter de tasa, y comportará el deber del concesionario o autorizado de abonar el importe de los daños y perjuicios que se causaren a los mismos bienes o al uso general o servicio al que estuvieren destinados. 8.ª Obligación de mantener en buen estado la porción del dominio utilizado y, en su caso, las obras que construyere. 9.ª Reversión o no de las obras e instalaciones al término del plazo. 10.ª Facultad de la corporación de dejar sin efecto la concesión antes

kalteak ordainduz edo ordaindu gabe, baldin eta ez badagokio. 11. Emakida jabetza-eskubidea salbu utzita emango da, eta hirugarrenei kalterik egin gabe. 12. Zigorrak izango dira, interesdunak betebeharretan arau-hauste arin, larri edo oso larriak eragiten baditu. 13. Adjudikaziodunak administrazioaren esku libre, hutsik eta epe barruan utzi behar izango ditu erabili dituen ondasunak, eta administrazio horri sustatzea bere kabuz erabakitzeko eta gauzatzeko ahalmena aitortuko dio".	del vencimiento, si lo justificaren circunstancias sobrevenidas de interés público, mediante resarcimiento de los daños que se causaren, o sin él cuando no procediere. 11.ª Otorgamiento de la concesión, salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de tercero. 12.ª Sanciones en caso de infracción leve, grave o muy grave de sus deberes por el interesado. 13.ª Obligación del concesionario de abandonar y dejar libres y vacuos, a disposición de la administración, dentro del plazo, los bienes objeto de la utilización y el reconocimiento de la potestad de aquella para acordar y ejecutar por sí el lanzamiento.”
EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB ZUZENTARAUAN –emakida-kontratuen adjudikazioari buruzkoan– xedatutakoaz gain, kontuan hartu beharko da Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean ezarritakoa; azken horren 96. artikuluak ezartzen duenez, emakidak eta baimenak norgehiagokako erregimenean ematerakoan, besteak beste, honako arau hauek bete beharko dira: “3. Ofizioz hastekoa bada, eskumena duen organoak deialdia onartuta abiaraziko da, eta deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, edo administrazio jardulearen araberako autonomia-erkidegoko edo probintziako aldizkarian, nahiz eta beste zabalkunde-bide gehigarri batzuk	Además de tener en cuenta lo dispuesto en la DIRECTIVA 2014/23/UE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 26 de febrero de 2014, relativa a la adjudicación de contratos de concesión, se deberá tener en consideración lo dispuesto en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas (LPAP), cuyo artículo 96 establece que el otorgamiento de autorizaciones y concesiones en régimen de concurrencia, se ajustará, entre otras, a las siguientes reglas: “3. La iniciación de oficio se realizará mediante convocatoria aprobada por el órgano competente, que se publicará en el Boletín Oficial del Estado, o en el de la comunidad autónoma, o provincia, según cual sea la Administración actuante, sin perjuicio de la posibilidad de usar

ere erabil daitezkeen. Interesa dutenek hogeita hamar eguneko epea izango dute dagozkion eskariak aurkezteko. 5. Emakida edo baimena eman edo ez erabakitzeko, eskatutako erabilera edo aprobetxamenduen artean interesgarriena eta interes publiko handienekoa zein den begiratu behar da. Balorazio hori egiteko orduan, baldintza-agirian zehazturiko irizpideak izango dira kontuan. 6. Prozedura hori ebazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez. Epe horretan ez baldin bada ebazpena jakinarazten, eskariari ezezkoa eman zaiola iritzi ahal izango zaio".	otros medios adicionales de difusión. Los interesados dispondrán de un plazo de treinta días para presentar las correspondientes peticiones. 5. Para decidir sobre el otorgamiento de la concesión o autorización, se atenderá al mayor interés y utilidad pública de la utilización o aprovechamiento solicitado, que se valoraran en función de los criterios especificados en los pliegos de condiciones. 6. El plazo máximo para resolver el procedimiento será de seis meses. Podrá considerarse desestimada la solicitud en caso de no notificarse resolución dentro de ese plazo.”
Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko eta Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legearen arauek aipatzen ez duten orotan Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa aplikatuko da, hain zuzen, 159. eta 159. artikuluak (prozedura irekiari dagokionez) eta 284. artikulutik 297. artikulura bitartekoak.	En lo no previsto en las citadas reglas de las normas citadas (RBEL y LPAP), será de aplicación lo previsto en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), y en concreto los artículos 159-159, para el procedimiento abierto, y artículos 284 a 297 de la LCSP.
e) Loteak Ez da loteka esleitzen, higiezin bakar baten emakida esleitzen da.	**e) Lotes** No se licita por lotes, por licitarse la concesión de un único inmueble.
III. ARRISKU ETA MENTURA Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 197. artikuluak ezartzen duenarekin bat, kasu guztietan, kontratistak arrisku eta menturara jardun beharko du kontratua egikaritzean. Halako kontratuei dagokienez, SPKLren 15.2 artikuluak esanbidez aipatzen du honako hau: "Zerbitzuak ustiatzeko	**III.- RIESGO Y VENTURA** Conforme establece el artículo 197 de la LCSP, el contrato, se ejecutará en todo caso a riesgo y ventura del contratista. Tal y como establece el artículo 15.2 de la LCSP, respecto a este tipo de contratos, expone expresamente que “el

eskubideak emakidadunari eragiketa-arriskua eskualdatzea ekarriko du berekin, aurreko artikuluaren laugarren apartatuan adierazitako eran". Eta 14. artikuluaren 4. atalak hauxe dio: "Kasu honetan irizten zaio emakidadunak eragiketa-arrisku bat hartzen duela bere gain: emakidadunak bermatuta ez daukanean, funtzionamenduko baldintza normaletan, egindako inbertsioak berreskuratuko dituenik edo emakidaren xede diren obren ustiapenaren ondorioz izan dituen kostuak estaliko dituenik. Emakidadunak hartutako arriskuak merkatuko ziurgabetasunen aurreko esposizio erreal bat ekarri beharko du berekin, eta emakidadunak izan dezakeen galera zenbatetsi oro galera nominal hutsa ez izatea, baizik eta kontuan hartzeko modukoa". Ondorioz, adjudikaziodunak bere arrisku eta menturara kudeatuko du zerbitzua eta ez du eskubiderik izango obra egikaritzean edo zerbitzua ematean eragindako kalteen, galeren edo matxuren ondoriozko kalte-ordainik, ezta meteorologiaren, beste pertsona batzuen edo administrazioen jardunaren ondoriozko kalte-ordainik ere jasotzeko, ezinbesteko kasuetan izan ezik edo, bestela, Udalak alde bakarretik emakidaren xedea aldatzen duenean edota kontratuaren esparrutik kanpoko erabakiak hartzen dituenean, halakoetan Udalak partekatu behar baitu gerora sortutako kostu handiena.	derecho de explotación de los servicios implicará la transferencia al concesionario del riesgo operacional, en los términos señalados en el apartado cuarto del artículo anterior." Y dicho apartado 4.º del artículo 14 dice: "Se considerará que el concesionario asume un riesgo operacional cuando no esté garantizado que, en condiciones normales de funcionamiento, el mismo vaya a recuperar las inversiones realizadas ni a cubrir los costes en que hubiera incurrido como consecuencia de la explotación de las obras que sean objeto de la concesión. La parte de los riesgos transferidos al concesionario debe suponer una exposición real a las incertidumbres del mercado que implique que cualquier pérdida potencial estimada en que incurra el concesionario no es meramente nominal o desdeñable." En consecuencia, el concesionario o la concesionaria gestionará el servicio a su riesgo y ventura y éste/ésta no tendrá derecho a indemnización por causa de pérdidas, averías o perjuicios ocasionados en las obras y servicio, así como consecuencia de la meteorología o de la conducta de terceras personas o Administraciones; salvo en los casos de fuerza mayor o por la modificación del objeto mismo de la concesión impuesta unilateralmente por el Ayuntamiento o decisiones de éste producidas fuera del ámbito contractual propiamente dicho, cuya mayor onerosidad sobrevenida ha de ser compartida por el Ayuntamiento.
IV. ITZULI BEHARREKO OBRA ETA INSTALAZIOAK. Kontratu hau amaitzen denean, Lekeitioko Udalak emakida honen xedea	**IV.- OBRAS E INSTALACIONES SUJETAS A REVERSION.** Al extinguirse el presente contrato el Ayuntamiento de Lekeitio recuperará

den ondasuna automatikoki bererskuratuko du. Eraikinean –adjudikaziodunaren borondatez edo agiri honetan eskatutakoa betez eta Udalaren baimena jasota– egindako hobekuntza guztiak bere horretan geratuko dira. Edozein obrak, Lekeitioko baimen espresuaz gain, Hirigintza baimena eduki beharko du. Aitzitik, emakida amaitu eta gero, adjudikaziodunak ondasun suntsikorrak bakarrik kendu ahal izango ditu (edariak, janaria eta jateko eta kontsumitzeko tresneria…), eta berak erositako ondasunak, beti ere lokaletik ken badaitezke lokalari kalte egin barik, pleguek baimentzekotan.	automáticamente el bien objeto de concesión. Quedarán sujetas a reversión todas aquellas mejoras que voluntariamente, previa la oportuna autorización municipal, o como consecuencia de las exigencias de este pliego se realicen en el inmueble. Cualquier obra, además del permiso del Ayuntamiento de Lekeitio, deberá contar con licencia urbanística. Por el contrario, únicamente podrán ser retirados por el/la concesionario/a a la finalización de la concesión los bienes fungibles (bebidas, alimentos y útiles de alimentación y consumo…), y los materiales por él adquiridos que puedan desprenderse sin causar menoscabo al local, si así lo permiten los pliegos.
V.- ENTREGATZEN DIREN UDAL ONDASUNAK Udalak eraikinaren zati bat adskribatuko du zerbitzura; ondasun higiezinaren titulartasuna Udalak gordeko du, baina gozamen-eskubidea adjudikaziodunak izango du.	**V.- BIENES MUNICIPALES QUE SE ENTREGAN** El Ayuntamiento adscribirá al servicio parte del edificio, conservando su titularidad, pero cuyo goce entrega al concesionario/a el inmueble.
VI. EMAKIDAREN EPEA Emakidak LAU (4) URTEKO iraupena izango du, kontratua adjudikatzea jakinarazi ondoren, dagokion administrazio-kontratua sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Kontratua amaitzeko epea bukatzerakoan, emakidaren xedea garbitasun- eta mantentze-egoera ezin hobean itzuli beharko da. Hala ere, kontratu berare esleipen berri bat porduko egin ezin izango balitz, Udalak esleipendunari errekeritu ahal izango dio emakida kudeatzen jarraitzeko esleipen berri bat formalizatu arte, eta esleipenduna horrretara behartuta	**VI.- PLAZO DE LA CONCESION.** La concesión tendrá una duración de CUATRO (4) AÑOS, contados a partir de la fecha en que suscriba el oportuno contrato administrativo, tras la notificación de la adjudicación del contrato. Llegado el plazo de vencimiento del contrato, el objeto de concesión deberá devolverse en perfecto estado de limpieza y conservación. Sin embargo, en caso de no haberse podido formalizar una nueva adjudicación del mismo contrato, el Ayuntamiento podrá requerir al adjudicatario o a la adjudicataria para que siga gestionando la concesión hasta nueva adjudicación,

egongo da, kontratua iraungitzeko unean indarrean dagoen prezioan. Emakidaren xedea den ondasun higiezina dagokion epemugan itzuli ezean, fidantza galduko da eta Udalari kalte-ordaina eman beharko zaio atzerapenak eragindako arazo guztiengatik; horrez gain, kostuei dagozkien kanona ordaintzen jarraitu beharko da. Kalte-ordain bezala, hitzartutako kanona baino sei aldiz handiago kanon bat ordaindu beharko du, objektuaren itzultzea atzeratzen den egun bakoitzagatik. Emakidak inplizitua du beti hura amaitu baino lehen suntsiarazteko ahalmena, interes publikoko eta ustekabeko gorabeheraren batek justifikatuz gero. Halakoetan, adjudikaziodunari eragindako kalteak ordainduko zaizkio.	estando obligado el adjudicatario a ello, al precio que resulte en el momento de la extinción. La no entrega en la fecha correspondiente del inmueble objeto de concesión implicará la pérdida de la fianza y el deber de indemnizar al Ayuntamiento de cualquier perjuicio que tal retraso le ocasione, así como el deber de seguir pagando el canon correspondiente. Se establece el pago, como indemnización, de un canon seis veces superior al canon pactado, por cada día que se demore la devolución del objeto. Se considera siempre implícita en la concesión la facultad de resolverla antes de su vencimiento, si así lo justificaran circunstancias sobrevendidas de interés público. En este supuesto el/la concesionario/a será resarcido de los daños que se le hayan producido.
VII. EGOERA EMAKIDAREN INDARRALDIAN <u>1.- Udalaren egoera.</u> Udala, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 284. artikuluan eta hurrengoetan, eta 1995eko ekainaren 17ko Dekretuaren bidez onartutako Toki Korporazioko Zerbitzuen Araudiaren 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat, higiezinaren eta era ez-zuzenean ematen duen zerbitzuaren titularra da, eta zerbitzu publiko hori du, une guztietan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2d) eta m) artikuluekin bat; horrek justifikatzen du zerbitzuaren kudeaketa une guztietan kontrolatzea eta gainbegiratzea.	**VII.- SITUACION DURANTE LA VIGENCIA DE LA CONCESION.** <u>1.- Situación del Ayuntamiento.</u> El Ayuntamiento es titular del inmueble y del servicio que presta de forma indirecta, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 284 y ss. de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, el art. 114 y siguientes del Reglamento de Servicios de Corporaciones Locales aprobado por Decreto de 17 de junio de 1995, ostentando este servicio público, en todo momento en virtud del art. 25.2d) y m) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, lo que justifica el control de su gestión y la inspección del servicio en todo momento.

2.- Adjudikaziodunaren egoera. Emakida indarrean dagoen bitartean, adjudikaziodunak zerbitzu publikoari dagokion jarduera eramango du aurrera, baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritako moduan eta baldintzetan. Edonola ere, adjudikaziodunari emakidan utzitako eraikinak Pleguetan aurreikusitako erabilera izango du, eta zerbitzuaren izaera publikoa definitzean azaldutako zerbitzu publikoa eman beharko da bertan.	2.- Situación del concesionario o la concesionaria. El concesionario/a, durante el plazo de vigencia de la concesión desarrollará la actividad en que el servicio público consiste, en la forma y condiciones establecidas en el presente pliego y según pliego de prescripciones técnicas. En todo caso, el edificio, que se cederá en concesión al concesionario o a la concesionaria, se destinará para los fines previstos en los Pliegos, debiendo cumplir con el destino de servicio público recogido al definir la esencia pública del servicio.
VIII. LIZITAZIOAREN PREZIOA: EMAKIDA KANONA a) Prezioa edo kanona Emakida-kanona edo lizitazio-prezioa, pertsona edo erakunde adjudikaziodunak ordaindu behar duena, honako hau izango da: HIRUROGEI MILA EURO (60.000,00.- €); zenbateko horri, hala badagokio, BEZa gehitu behar izango zaio. Prezioa jarraian zehazten den bezala banatzen da: Hileko kanona: 1.250,00.- € Urteko kanonal: 15.000,00.- € Epea: 4 urte Guztizko kanon tipoa: 60.000,00.- € Pertsona edo erakunde lizitatzaileek lizitazio-prezio/-kanon handiagoa eskaini ahal izango dute, ezarritakoa gutxienekoa delako. Automatikoki baztertuko dira aipatutako lizitazio-preziotik beherako eskaintza ekonomiko guztiak.	**VIII.- PRECIO DE LICITACIÓN: CANON CONCESIONAL** a) Precio o canon El canon concesional o precio de licitación a pagar por la persona o entidad adjudicataria queda fijado en la cantidad de SESENTA MIL EUROS (60.000,00.- €), importe que se deberá incrementar con el IVA si correspondiera. Dicho precio se desglosa del siguiente modo: Canon mensual: 1.250,00.- € Canon anual: 15.000,00.- € Plazo: 4 años Canon tipo total: 60.000,00.- € Las personas o entidades licitadoras podrán ofertar precios que superen el precio/canon de licitación, considerado como mínimo. Quedará automáticamente rechazada cualquier oferta económica inferior al citado precio de licitación.

b) Ordaintzeko modua Adjudikaziodunak eskaintzan ezarritako kanona, hilabetez bananduta, hilean behin ordainduko du, hilabete bakoitzaren 1etik 10era bitartean, udal Diruzaintzan edo horretarako ezarritako kontuan, sinatuko den administrazio-kontratuan adierazitakoan. Iraungipena hileko kuota osoarekin bat ez badator, azken hilabetean erabilitako aldiari dagokion kanonaren zati proportzionala ordainduko da. Kanona emakidaren xedea erabat itzuli arte ordaindu beharko da, pertsona edo erakunde adjudikaziodunari emakidaren xedea Udalari itzultzea atzeratzeagatik ezar dakizkiokeen zigor eta zehapenak galarazi gabe. Hau plegu honetan jasotzen denari kalte egin barik, itzultzearen atzerapenagatik kalte-ordaina ordaintzeko beharri buruz.	b) Forma de pago El adjudicatario o la adjudicataria abonará el canon ofertado, dividido en mensualidades, mensualmente, entre los días uno (1) y diez (10) de cada mes, en la Tesorería municipal o en la cuenta establecida para ello, que se concretará en el contrato administrativo a suscribir. En caso de no coincidir la extinción con una mensualidad completa, se pagará la parte proporcional al canon correspondiente del período disfrutado en la última mensualidad. El canon deberá pagarse hasta la completa devolución del objeto de concesión, sin perjuicio de las penalizaciones y sanciones en que incurriera la persona o entidad adjudicataria en caso de retrasar la devolución del objeto de concesión al Ayuntamiento. Ello sin perjuicio de la indemnización señalada en el pliego en caso de retraso en la devolución.
c) Lehen ordainketa Lehen hilabeteari (edo horren zatiari) dagokion kanona kontratua sinatu eta hurrengo bost egunetan sinatu beharko da.	c) Primer pago El canon correspondiente a la primera mensualidad (o fracción) se abonará en el plazo de cinco días desde la firma del contrato.
d) Kanona berrikustea Kanonaren zenbatekoa diruaren erosahalmenera egokitzeko, hitzartutako kanona berrikusi egingo da, estatistika-zerbitzu ofizialek argitaratutako Euskal Autonomia Erkidegorako kontratua hitzartzen den hilabeteko urteko kontsumo metatuaren prezioen indizean izandako aldakuntzaren zuzeneko proportzioan. Eguneratzeak Udalak egingo ditu,	d) Revisión del canon Con el fin de adecuar la cuantía del cánon al poder adquisitivo de la moneda, el cánon pactado será objeto de revisión en proporción directa a la variación producida en el índice de precios al consumo anual acumulado del mes de concertación del contrato para la Comunidad Autónoma del País Vasco publicado por los servicios oficiales de estadística. Las actualizaciones se llevarán a cabo por el Ayuntamiento cuando se conozca

kontratua sinatzen den hilabetearekiko aldaketa ezagutzen denean. Eguneratzea atzeratzeak ez du esan nahi atzerapenari uko egin behar zaionik, eta atzeraeraginez egin ahal izango da.	la variación respecto al mes de firma del contrato. El retraso en la actualización no implicará renuncia a la misma, pudiendo llevarse a cabo con efecto retroactivo.
IX. ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK	**IX. DERECHOS Y OBLIGACIONES**
A.- Pertsona edo erakunde adjudikaziodunaren eskubide eta eginbeharrak	A.- Derechos y obligaciones de la persona o entidad concesionaria
a) Eskubideak 1. Emakidaren xedea den ostalaritza-negozioaren (aterpetxea eta taberna) kudeatzea eta ustiatzea, dagokion ustiapen-eskubidearekin, betiere ordutegiari eta osasunari buruzko araudia errespetatuz, eta, ondorioz, aterpetxe eta taberna-zerbitzuaren erabiltzaileengandik dagokion ordaina jasotzea. 2. Zerbitzuari lotutako udal ondasunak zerbitzua emateko erabiltzea. b) Eginbeharrak 1. Hamabost (15) egutegi-eguneko epean –kontratua sinatzen den egunetik hasita– tabernako eta aterpetxeko zerbitzua erregulartasunez ematen hastea, lokala, instalazioak eta zerbitzu osagarriak abiarazita. Lokalak, funtzionatu bitartean, zorrotz bete beharko ditu alkateak edo ordezko zinegotziak bere eskumeneko gaian emandako xedapenak eta indarrean dagoen legedia.	a) Derechos 1. Gestionar y explotar el negocio de hostelería (albergue y bar) objeto de concesión, con el consiguiente derecho a su explotación siempre con respeto a la normativa horaria y sanitaria, y, en consecuencia, a percibir de los usuarios y las usuarias del servicio de albergue y de bar la contraprestación correspondiente. 2. Utilizar los bienes municipales afectos al servicio para la prestación del mismo. b) Obligaciones 1. Iniciar la prestación regular del servicio de albergue y bar en el plazo de quince (15) días naturales desde la firma del contrato, poniendo en funcionamiento el local con sus instalaciones y servicios anexos, el cual funcionará con sujeción a las disposiciones que dicte la Alcaldía, o concejalía delegada, en materia de su competencia y a la legislación vigente.

2. Zerbitzua emakidaren epe osoan eman beharko da, baldintza-agirietan eskatzen diren orduetan edo adjudikaziodunaren eskaintzan jasotako ordutegian (baldintza-agiriek eskatzen diren gutxieneko baldintzak baino hobeak badira). Ustiapenak betebehar izaera izango du, eskubidea izateaz gain.	2. El servicio se deberá prestar durante todo el plazo de la concesión en los horarios exigidos por los pliegos, o los que resulten de la oferta adjudicataria (si mejorasen los mínimos requeridos por los pliegos), teniendo la explotación naturaleza obligacional, además de ser un derecho.
3. Adjudikaziodunaren kargura izango dira zerbitzua emateak eta emakidaren xedea ustiatzeak eragiten dituen gastuak, honako hauek barne: uraren, gasaren eta energia elektrikoaren hornidurak; zabor-bilketa eta estolderia, baita negozioa aurrera eramateko eta aplikatu beharreko araudia betetzeko egin behar den edozein gastu edo hornigai (janaria, edariak…) ere. Halaber, emakidadunak jarri eta ordaindu beharko ditu komuneko papera, eskuak garbitzeko papera, eskuak garbitzeko xaboia, garbitzeko materialak… eta orokorrean aplikagarria den araudiak eskatzen dueña.	3. Serán de cargo del concesionario o de la concesionaria los gastos que se originen como consecuencia de la prestación del servicio y la explotación del objeto de concesión, incluidos los suministros de agua, gas y energía eléctrica, recogida de basuras y alcantarillado, así como cualquier gasto o suministro necesario para el desarrollo del negocio (suministro de comida, bebida…), suministro de papel higiénico, papel de limpieza de manos, jabon de manos, materiales de limpieza, y el cumplimiento de la normativa de aplicación.
4. Eraikuntza eta instalazioak kontserbatzea, eta eraikina, onenean mantentzea –funtzionamenduari, garbitasunari eta higieneari dagokionez–, Udalari entregatu arte, zerbitzuari lotuta dauden eta hura emateko beharrezkoak diren instalazio guztiekin. Horrek barnean hartzen ditu ondasun	4. La conservación de las construcciones e instalaciones, así como el mantenimiento en perfecto estado de funcionamiento, limpieza e higiene del edificio, hasta que sea entregada al Ayuntamiento con todas las instalaciones que sean inherentes al mismo y necesarias para su prestación.

higiezinean edo altzarietan egin beharreko konponketak edo, hala badagokio, horiek ordeztea.	Ello implicará llevar a cabo las reparaciones del inmueble o el mobiliario, o en su caso, la reposición.
5. Edukitzailea zein edukia barnean hartzen dituen aseguru-poliza bat sinatzea: edukitzailea 150.000 euroko balioarekin, “Udalaren alde” klausularekin, eta edukia eta jardueraren ondorioz hirugarrenek eta langileek jasan ditzaketen arriskuak, 600.000 euroko estaldurarekin (gorabehera eta biktima bakoitzeko), erantzukizun zibil orokorra eta negozioaren ustiapena bermatuta. Ustiapenaren xedea den jarduera estali beharko duen polizak emakida-epe osoan indarrean egon beharko du. Indarraldia bermatze aldera, urtean behin polizari dagokion jaso izanaren agiria edo hura egiaztatzen duen aseguruaren ziurtagiria bidali beharko da.	5. Suscribir una póliza de seguro que garantice tanto el continente, por valor de 150.000 euros, con la cláusula de “a favor del Ayuntamiento”, como el contenido y los riesgos que pudieran derivarse de la actividad para terceros y trabajadores, garantizando la responsabilidad civil general y de explotación del negocio, con una cobertura de 600.000 euros por siniestro y víctima. Dicha póliza, que deberá cubrir la actividad objeto de explotación, deberá estar vigente durante toda la concesión. A fin de garantizar dicha vigencia, anualmente se deberá remitir copia del recibo correspondiente a la póliza, o certificado del seguro que lo acredite.
6. Araudi bidez ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei zerbitzua erabiltzen uztea. Sarrera ukatzeko eskubidea autonomia-erkidegoko araudian xedatutakoak arautuko du.	6. Admitir al goce del servicio a toda persona que cumpla los requisitos establecidos reglamentariamente. La reserva de derecho de admisión se regirá por lo dispuesto en la normativa autonómica.
7. Zerbitzuaren funtzionamenduak hirugarrenei eragiten dien kalteak ordaintzea.	7. Indemnizar a terceros de los daños que les ocasionase el funcionamiento del servicio.
8. Era berean, adjudikaziodunaren betebeharra izango da beti langile guztiak Gizarte	8. Asimismo, el concesionario o la concesionaria estará obligado/a siempre a que todo el personal empleado se halle

Segurantzan alta emanda egotea; adjudikaziodunak gizarte-segurantzari eta lan-istripuei dagozkien kuotak ordaindu beharko ditu, baita emakidaren indarraldian lan, gizarte eta zerga arloetan sor daitezkeen kuota guztiak ere.	dado de alta en la Seguridad Social, y estará obligado al pago de los seguros sociales, de accidentes de trabajo y cuanto se derive durante la vigencia de la concesión sobre materia laboral, social y fiscal.
9. Adjudikaziodunak bere zerga-betebeharrak bete beharko ditu, hau da, egunean izango ditu Ogasunarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Udalarekiko ordainketak kontratuaren indarraldi osoan.	9. El concesionario o la concesionaria deberá cumplir con sus obligaciones tributarias, hallándose al corriente en pagos con Hacienda, con la Seguridad Social y con el Ayuntamiento durante toda la vigencia del contrato.
10. Adjudikaziodunak aplikatzen zaion eta Bizkaian indarrean dagoen hitzarmen kolektiboaren araberako soldata ordaindu beharko die kontratatutako langileei, hitzarmen propiorik ez badu edo hitzarmen kolektiboa hobetzen duten baldintzak adostu ez baditu; izan ere, hitzarmen kolektiboko baldintzak gutxienekoak dira.	10. El concesionario o la concesionaria deberá retribuir al personal contratado según el convenio colectivo aplicable y vigente en Bizkaia, salvo que disponga de convenio propio o que pacte condiciones que mejoren dicho convenio, cuyas condiciones tienen la condición de mínimas.
11. Adjudikaziodunak ezin izango du emakidari lotuta dauden eta Udalari itzuli behar zaizkion ondasunetako bat besterendu edo kargatu, Korporazioak esanbidezko baimenik eman ez badu. Halaber, adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du ondasun horiek ezarritako epean Udalaren eskura hutsik utziko dituela eta, hala badagokio, Udalak sustapena adostu eta gauzatzeko duen ahalmena onartuko duela.	11. El concesionario o la concesionaria no podrá enajenar ni gravar de ningún modo bienes afectos a la concesión que hubieran de revertir al Ayuntamiento concedente, salvo autorización expresa de la Corporación, comprometiéndose a dejarlos libre y vacuos a disposición del Ayuntamiento, dentro del plazo establecido y de reconocer la potestad de éste para acordar y ejecutar el lanzamiento en su caso.

12. Adjudikaziodunak utzi beharko dizkie udal teknikariei, alkateari edo dagokion arloan zinegotzi ordezkaritza betetzen duen pertsonari emakidaren xedea den tokira sartzen, adjudikaziodunaren eginbeharrak betetzen diren egiazta dezaten.	12. El concesionario o la concesionaria deberá permitir a los técnicos municipales, a la Alcaldía o a la persona que ostente la Concejalía delegada de área que corresponda el acceso al objeto de concesión, a fin de que pueda ser fiscalizado el cumplimiento de las obligaciones del concesionario.
13. Adjudikaziodunak baldintza-agiri honen xedapenak, Baldintza Teknikoen Pleguarenak eta berak aurkeztutako eskaintzatik datozenak bete beharko ditu.	13. El concesionario o la concesionaria queda obligado/a a las prescripciones de este Pliego, del Pliego de Prescripciones Técnicas, y a las que deriven de su propia oferta.
14. Nazionalitatea dela eta inor ez diskriminatzeko printzipioa errespetatu beharko du adjudikaziodunak, baldin eta zerbitzu-emakidaren ondorioz hornidura-kontratua egin behar badu Europar Batasuneko estatuetako enpresekin edo Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatua duten estatuetako enpresekin.	14. El concesionario o la concesionaria deberá respetar el principio de no discriminación, respecto de las empresas de Estados miembros de la Unión Europea o signatarios del Acuerdo sobre Contratación Pública de la Organización Mundial del Comercio, en los contratos de suministro consecuencia del de concesión de servicios.
15. Adjudikaziodunak ingurumen-babesari buruzko araudia bete beharko du bere jardueran.	15. El concesionario o la concesionaria deberá velar por el cumplimiento de la normativa de protección de datos en su actividad.
16. Adjudikaziodunak zerbitzua ondo dabilela zaindu beharko du eta horretarako jarraibiderik behar bada, jarraibideak emango ditu. Debekatuta egongo da: moraltasunaren edo ordena publikoaren aurkako jokabideak,	16. El concesionario o la concesionaria deberá cuidar del buen orden del servicio, pudiendo dictar las oportunas instrucciones. A tal fin, no se permitirán conductas que dañen la moral, ni el orden público, ni el consumo de

debekatutako substantziak kontsumitzea; era berean, debekatzen dira arraza, sexu edo erlijioa dela eta diskriminatzailea den edukia edo izaera duten musika, programa, jarduera edo ikuskizun guztiak.	sustancias prohibidas, ni se permitirá ninguna música, programa, actividad o espectáculo que tenga contenido o naturaleza discriminatoria por razón de raza, sexo o religión.
17. Adjudikaziodunak beharrezko neurriak hartuko ditu bere langileek bezeroei euskaraz hitz egin ahal izateko. Lokalean dauden karteletan eta informazioan (prezioen zerrenda), eta emakidaren objektuaren kudeaketan ere euskara erabili beharko du	17. El concesionario o la concesionaria adoptará las medidas oportunas para que el personal a su cargo pueda dirigirse a su clientela en euskara. Deberá utilizar el euskara en la cartelería e información (carta de precios) del local, y en la propia gestión del objeto de concesión.
18. Edozein kartela jartzea debekatzen da, aldez aurretik Lekeitioko Udalak baimen espresua ez ematekotan, jarduera berari buruzkoak izan ezik, prezioei buruzkoak, zerbitzuei buruzkoak eskaintzei buruzkoak izan ezik….	18. Se prohíbe la colocación de cualquier cartel, sin permiso expreso previo del Ayuntamiento de Lekeitio, salvo los relativos a la propia actividad, sus precios, servicios, ofertas…
19. COVID19aren krisialdiaren ondorioz, araudiak ezartzen dituen betekizun guztiak bete beharko ditu emakidunak, beste ahalbidezko osasun arloko krisialdien ondorioz bezala.	19. El Adjudicatario deberá cumplir con todas las obligaciones que le correspondan, por normativa, como consecuencia de la crisis del COVID19, o de otras posibles crisis sanitarias.
20. Emakidunak saltzen edo hornitzen dituen produktuekin arreta berezia izan beharko du.	20. El Adjudicatario deberá prestar especial atención a la normativa sanitaria de los productos que venda o suministre.
21. Emakidunak zerbitzuen xede den eraikinaren kontserbazioa eta ustiapenerako behar diren baimen guztiak lortu beharko ditu, berak lortuta eta ordainduta, berak zuzenean	21. El concesionario o la concesionaria deberá obtener a su costa cuantas autorizaciones sean necesarias para la conservación y explotación del

eta bakarrik ordaintzen, kontserbazioak eta ustiapenak behar dituen ohiko eta ez-ohiko gastuak.	edificio objeto de concesión, sufragando por cuenta directa y exclusiva los gastos, tanto ordinarios como extraordinarios, que conlleve tal conservación y explotación.
22. Emakidunak eraikina egoera onean mantendu beharko du, honen ur hornidurarako eta saneamendurako instalazioak, edota elektrziitate hornidurakoa legez. Honetarako, bere mantenimendurako, berak egin eta ordaindu beharko ditu egin beharreko obra guztiak.	22. El concesionario o la concesionaria deberá mantener en buen estado de conservación todo el Edificio y las instalaciones de suministro de agua y saneamiento del mismo, así como de suministro eléctrico, para lo cual realizará a su costa las obras y mantenimiento necesarios.
23. Emakidunak jagongo du emakidaren objektua den instalazio ororen funtzionamendua, eta erabiltzaileentzako zerbitzu ona ziurtatzeko mekanismoak berrikusi beharko ditu. Honetarako, Udal teknikariek emandako iradokizunak beteko ditu.	23. El concesionario o la concesionaria vigilará minuciosamente el funcionamiento de todas las instalaciones que comprende el objeto de concesión, y revisará los mecanismos de las mismas para garantizar un buen servicio a los usuarios. Atenderá a este respecto, las sugerencias que se le hagan por los técnicos del Ayuntamiento.
24. Emakidunak emakidaren objektua baldintza onenetan ustiatua izan ahal izateko instalazioetan egin behar diren berrikuntzak eta hobekuntzak egin beharko ditu.	24. El concesionario o la concesionaria deberá, asimismo, efectuar las renovaciones y mejoras en las instalaciones que sean precisas, para que el objeto de concesión reúna condiciones óptimas en su explotación.
Emakidunak Udalari jakinarazi beharko dizkio aldaketa eta hobekuntza guztiak, eta ezin izango ditu egin lehenago Udalak emandako beharrezko baimena ematen ez bazaio.	Toda modificación o mejora que pretenda llevar a cabo el concesionario o la concesionaria en el objeto de concesión deberá ser comunicado al Ayuntamiento,

25. Kontratu hau gauzatzeko, gizarte- eta ingurumen-arloko baldintza hauek bete beharko dira: a) Gizarte-arlokoak: gizarteratzeko eta dinamizatzeko programak egin beharko ditu. b) Ingurumenari dagokionez: energia aurrezteko eta hondakinak modu berezian birziklatzeko sistemaren bat jarraitzen duela egiaztatu beharko du. Hain zuzen ere, kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratua erreserbatu legez emateko kontuan hartu den izaera mantendu beharko du.	no pudiendo realizar las mismas mientras no cuente con la preceptiva autorización. 25. Para la ejecución de este contrato se exigirán las siguientes condiciones de ejecución de carácter social y medioambiental: a) De carácter social: Deberá llevar a cabo programas de inserción social así como de dinamización social. b) De carácter medioambiental: deberá acreditar que sigue algún sistema de ahorro energético, de reciclaje especial de residuos… En concreto, durante la vigencia del contrato deberá mantener la naturaleza jurídica que haya permitido la adjudicación del contrato como reservado.
Udalak zera egin ahal izango du: a) Eskubideak: Udalak, legez dagozkienak galarazi gabe, honako ahalmen hauek izango ditu: 1. Pertsona edo erakunde adjudikaziodunari dagokion kanona kobratuko dio. 2. Era diskrezionalean agindu ahal izango ditu, interes publikoa dela eta, komeni diren aldaketa guztiak eta, besteak beste, aldaketak zerbitzuaren kalitatean, kantitatean, denboran edo moduan; hori, dena den, dagokion klausulan arautuko da. 3. Alkatetzaren edo udal arloko zinegotzi ordezkaritzaren bidez, adjudikaziodunak	El Ayuntamiento podrá: 1. Derechos: El Ayuntamiento ostentará, sin perjuicio de las que legalmente procedan, las potestades siguientes: 1. Cobrar el canon correspondiente a la persona o entidad adjudicataria. 2. Ordenar discrecionalmente, las modificaciones que aconsejare el interés público y, entre otros, la variación en la calidad, cantidad y tiempo o forma de la prestación en que el servicio consiste, lo cual será regulado en la cláusula correspondiente. 3. Fiscalizar a través de la Alcaldía, o concejalía delegada de área, la gestión

egiten duen kudeaketa ikuskatuko du; horretarako, zerbitzuan, instalazioetan eta lokalean ikuskapenak egin ahal izango ditu; era berean, emakidaren xedeari buruzko dokumentazioa begiratu ahal izango du, eta zerbitzua behar bezala ematea edo berrezartzea agindu.	del concesionario/a, a cuyo efecto podrá inspeccionar el servicio, instalaciones, locales… así como la documentación relacionada con el objeto de la concesión y dictar las órdenes para mantener o restablecer debidamente la prestación.
4. Aldi baterako zerbitzua zuzenean eman ahal izango du, adjudikaziodunak, berari egotz dakiokeen edo ez dakiokeen arrazoi bat dela medio, zerbitzua ematen ez badu edo eman ezin badu.	4. Asumir temporalmente la ejecución directa del servicio en los casos que no la prestare o no la pudiere prestar el concesionario/a por circunstancia imputable o no al mismo/a.
5. Baldintza-agiri honetan aipatutako kasuetan, adjudikaziodunari dagozkion zehapenak ezarri ahal izango dizkio egindako arau-hausteengatik.	5. Imponer al concesionario/a las sanciones pertinentes por razón de las infracciones que cometiere, en los casos previstos en este pliego.
6. Emakida berreskuratu ahal izango du, baldintza-agiri honetan aurreikusitako kasuetan.	6. Rescatar la concesión, en los casos previstos en este pliego.
7. Zerbitzua bertan behera uztea, baldintza-agiri honetan aipatzen diren kasuetan.	7. Suprimir el servicio, en los casos previstos en este pliego.
b) Eginbeharrak: Udalak honako eginbehar hauek izango ditu:	b) Obligaciones: El Ayuntamiento deberá:
1. Adjudikaziodunari behar besteko babesa eman beharko dio, hark zerbitzua era egokian eman ahal izateko.	1. Otorgar al/a concesionario/a la protección adecuada para que pueda prestar el servicio debidamente.
2. Emakidaren oreka finantzarioa mantendu beharko du; horretarako, adjudikaziodunari konpentsazio ekonomikoa emango dio zerbitzuan egiteko aginduko dizkion aldaketengatik, horiek kostuak areagotzen edo	2. Mantener el equilibrio financiero de la concesión, para lo cual compensará económicamente al concesionario/a por razón de las modificaciones que le ordenare introducir en el servicio y que incrementaren los costos o

ordainsaria jaisten badute (pleguetan edo eskaintzan jasotzen ez badira). Udalak ez du jardueran egon daitezkeen beste gorabehera batzuen, kausa meteorologikoen eta hirugarrenek eragindakoen erantzukizunik izango, kontratuaren lizitazioan adjudikaziodunak negozioaren arriskua eta mentura bere gain hartzen dituelako.	disminuyeren la retribución, no contempladas en el pliego o en la oferta. No responderá de otras incidencias de la actividad, causas meteorológicas o de terceras personas, por licitarse el contrato asumiendo el adjudicatario el riesgo y ventura del negocio.
3. Zerbitzuaren gestioa zuzenean betetzeak eragindako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio adjudikaziodunari, adjudikaziodunaren erruarekin zerikusirik ez duten interes publikoko arrazoiak direla eta gertatzen bada, legez hala dagokionean.	3. Indemnizar al concesionario/a de los daños y perjuicios que le ocasionare la asunción directa de la gestión del servicio, si esta se produjera por motivos de interés público independientes de culpa del concesionario/a, en los casos que legalmente proceda.
4. Kalte-ordaina emango dio adjudikaziodunari emakida berreskuratzeagatik edo zerbitzua bertan behera uzteagatik, legez hala dagokionean.	4. Indemnizar al concesionario/a por el rescate de la concesión o en caso de supresión del servicio, en los casos que legalmente proceda.
X. ZERBITZUAREN EMAKIDA AZKENTZEA Honako kasu hauek izango dira emakida-kontratua azkentzeko arrazoiak:	**X. EXTINCION DE LA CONCESION DEL SERVICIO.** Son supuestos de extinción del contrato de concesión los siguientes:
1. Kontratua adjudikaziodunaren arau-hauste larri batengatik (funtsezko betebeharretako bat ez betetzeagatik) suntsiaraztea; aldez aurretik, espedientea irekiko da eta gabezia zehatzak azaltzen dituen ohartarazpen frogagarria egingo zaio, eta zentzuzko epe bat emango zaio espresuki, gabezien izaera kontuan hartuta, horiek zuzentzeko aukera emanez; hori egin ezean, kontratua suntsiarazi egingo da.	1. Resolución por incurrir el/la concesionario/a en infracción grave de sus obligaciones esenciales, previo expediente con advertencia fehaciente de las concretas deficiencias y concesión expresa de un plazo prudencial, de acuerdo con la naturaleza de tales deficiencias, para poder subsanarlas, cuando transcurrido el plazo no se hubiera hecho así.

2. Zerbitzua Udalari itzultzea, kontratuan ezarritako epea amaitu delako. 3. Udalak zerbitzua berreskuratzea, behar hori justifikatzen duen espedientea izapidetu eta gero. 4. Hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo banakako enpresaburua hiltzea, baldin eta, azken kasu horretan, enpresaburua bere karguan subrogatuko duen oinordekorik ez badago. Oinordekorik egonez gero, era solidarioan arduratu ahal izango dira emakidaz, oinordetza banatu aurretik ere; banaketa enpresaburua hil eta urtebeteko epean egin beharko da, bestela, emakida iraungitzat joko da. 5. Hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo pertsona juridiko kudeatzailea azkentzea. 6. Arau-hauste oso larria egitea, plegu honetan jasotzen den bezala. 7. Esleipendunak kontratu erreserbatua esleitzeko baimendu duen izaera juridikoa galtzea. Hirigintza arloko edo interés publikoko arrazoiengatik, edo indar nagusiaren arrazoiengatik, Udalak kontsezioa desegin behar izango balu epea amaitu baino lehen, emakidunak galduko du kontzesioa, horregatik inolako kalteordainik eskatzeko eskubiderik izango ez duelarik.	2. Reversión del servicio al Ayuntamiento por cumplimiento del plazo establecido en el contrato. 3. Rescate del servicio por el Ayuntamiento previo expediente en el que se justifique su necesidad. 4. Declaración de concurso de acreedores o muerte del empresario/a individual, salvo la existencia en este último supuesto de heredero o herederos que se subroguen en la posición de aquél. En tal caso, los herederos podrán hacerse cargo de la concesión de forma solidaria aún antes de la partición de la herencia, debiendo realizar ésta dentro del plazo de un año del fallecimiento, en caso contrario se entenderá extinguida la concesión. 5. Declaración de concurso de acreedores o extinción de la persona jurídica gestora. 6. La comisión de una infracción muy grave, según dispone este pliego. 7. La pérdida de la naturaleza jurídica del adjudicatario que haya permitido la adjudicación del contrato como reservado. Si por razones urbanísticas o por cualquier otra circunstancia de interés público, o fuerza mayor, el Ayuntamiento tuviese que rescindir la concesión antes de su vencimiento, el concesionario se verá privado de ella por el plazo que reste de vigencia, sin que, por ello, tenga derecho a indemnización alguna.
XI. EGINBEHARRAK BETE EZ IZANAREN ONDORIOZKO ZEHAPENAK.	**XI. SANCIONES POR INCUMPLIMIENTO.**

Adjudikaziodunari lepora dakizkiokeen arau-hausteak honela sailkatzen dira: • I. Arinak. • II. Larriak. • III. Oso larriak.	Las infracciones en que pueda incurrir el concesionario se clasifican en: • I. Leves. • I. Graves. • I. Muy Graves
Arau-hauste arinak honako hauek dira: a) Bezeroekin eta zerbitzuaren erabiltzaileekin begirunerik gabe jokatzea (begirunetik eza arina bada). b) Lagatako eraikinaren narriadura arina. c) Behar den maiztasunarekin ez garbitzea. d) Baldintza-agirian ezarritako eginbeharrak ez betetzea, arau-haustea larria edo oso larria ez denean.	Son infracciones Leves: a) La falta de consideración leve con los clientes y usuarios del servicio. b) Deterioro leve del objeto concedido. c) No cumplir las frecuencias de limpieza. d) No cumplir las obligaciones del pliego, en el caso de que la infracción no tenga naturaleza de grave o muy grave.
Arau hauste larriak dira: a) Bezeroekin eta zerbitzuaren erabiltzaileekin begirunerik gabe jokatzea (larria denean). b) Lagatako ondasunaren narriadura engainagarria, ez larria, nahitaez hondatu izana eta konpondu edo ordeztu gabe uztea. c) Udalaren errekerimenduei edo aginduei kasurik ez egitea. d) Establezimendua irekitzeko eta ixteko egutegia edo ordutegia ez betetzea. e) Jarduerari buruzko araudia zorrotz ez betetzea. f) Arau-hauste arinak behin eta berriro egitea.	Son infracciones graves: a) La falta de consideración grave con los clientes y usuarios del servicio. b) Deterioro doloso no grave del objeto concedido, o deterioro por culpa y sin respuesta de reparación o reposición. c) No atender a los requerimientos u órdenes del Ayuntamiento d) No respetar el calendario u horario de apertura y cierre del establecimiento. e) No respetar de forma estricta la normativa relativa a la actividad. f) La reincidencia en la comisión de infracciones leves.
Arau-hauste oso larriak honako hauek dira: a) Ekipamendua Udalak Baldintza Teknikoen Agirian eskatzen duenaren arabera edo eskaintzan adierazitakoarekin bat ez jartzea.	Son infracciones Muy Graves: a) La no colocación del equipamiento conforme lo exigido en el Pliego de Prescripciones técnicas por el Ayuntamiento, o

b) Zerbitzua ezarritako epean ematen ez hastea. c) Zerbitzua etetea, beharrezko azalpenik gabe. d) Kanona ez ordaintzea. e) Lagatako ondasunaren narriadura larria. f) Dagokion aseguru-poliza ez sinatzea edo kontratuan zehar ez mantentzea. g) Araudi bidez ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei establezimenduan sartzen ez uztea. h) Udalari itzuli behar zaizkion eta emakidaren xedea diren ondasunak besterentzea edo kargatzea. i) Emakida adjudikaziodunak berak ez erabiltzea edo emakida eskualdatzea. j) Arau-hauste larriak behin eta berriro egitea.	conforme a lo recogido en la oferta. b) El no inicio de la prestación del servicio en el plazo establecido. c) La suspensión no debidamente justificada de la prestación del servicio. d) El impago del canon. e) El deterioro grave del bien concedido. f) La no suscripción o no mantenimiento de la correspondiente póliza de seguros. g) La no admisión en el establecimiento de toda persona que cumpla los requisitos dispuestos reglamentariamente. h) La enajenación o gravamen de bienes afectos a la concesión que hubieran de revertir al Ayuntamiento. i) El no ejercicio por sí de la concesión o su traspaso. j) La reincidencia de infracciones graves.
Arau-hausteek honako zehapen hauekin zigortuko dira: • Arinak……. 50,00 eta 200,00 euro bitarteko isunak • Larriak…….. 200,00 eta 500,00 euro bitarteko isunak • Oso larriak…….. 500,00 eta 2.000,00 euro bitarteko isunak, baita kontratua suntsiaraztea ere, e, f, i eta j letretan aipatutako kasuetan, eta gainerako arau-hauste oso larriak behin eta berriz egiten badira.	Las infracciones se sancionarán con: • Leves……. Desde 50,00 hasta 200,00 euros • Graves…….. Desde 200,00 a 500,00.- euros • Muy Graves…….. Desde 500,00 a 2.000,00 euros, e incluso la resolución del contrato, en los casos de las letras e, f, i, j y en caso de reincidencia en las demás infracciones muy graves.
Arau-hauste arinak alkateak zuzenean zigortuko ditu, adjudikaziodunari entzun	Las infracciones leves serán sancionadas por la Alcaldía directamente, oído el/la

eta gero; gainerako zehapenek, aldiz, espedientea izapidetzea eskatzen dute, administrazio-prozedura erkideko arauak betez.	concesionario/a; y las demás sanciones precisan la previa tramitación de un expediente con arreglo a las normas de procedimiento administrativo común.
XII.- OBRAK UDALARI ITZULTZEA. Emakida-kontratua iraungita, Udalak berreskuratuko ditu itzuli beharreko ondasun edota instalazioak. Kontratuaren epea amaitu baino hilabete bat lehenago, Udalak teknikari bat izendatuko du, obra eta materialen kontserbazio-egoera egiazta dezan eta erabiltzeko moduan jartzeko egin behar diren konponketa eta berriztapenen berri Udalari eman diezaion. Adjudikaziodunak Udalaren jarraibideak behin eta berriz betetzen ez baditu edo fede gaiztoz jokatzen badu, emakidaren iraungipena deklaratzeko arrazoia dela erabakiko da.	**XII. REVERSION DE LAS OBRAS AL AYUNTAMIENTO.** Extinguido el contrato de concesión el Ayuntamiento recuperará los bienes o instalaciones objeto de reversión. Un mes antes de que expire el plazo del contrato, el Ayuntamiento designará un técnico, el cual vigilará la conservación de las obras y el material, e informará al Ayuntamiento sobre las reparaciones y reposiciones necesarias para mantener en condiciones de uso adecuado. Si el/la concesionario/a incumpliese sistemática las instrucciones que le curse el Ayuntamiento u obrase de mala fe, se considerarán que se dan los supuestos previstos para declarar la caducidad de la concesión.
XIII. ADJUDIKATZEKO MODUA Emakida baldintza-agiri honetan zehazten diren irizpideak eta toki-erakundeetako kontratazioa erregulatzen duen araudia aplikatuz adjudikatuko da.	**XIII. FORMA DE ADJUDICACION.** La adjudicación de la concesión se realizará por la evaluación de los criterios establecidos en el presente pliego de cláusulas y la normativa que regula la contratación de los entes locales.
XIV. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA A) GAITASUNA Kontratazio-jardunbide honetan, pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute, baldin eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa badute, beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta SPKLren 74. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekurik ez badute.	**XIV.- APTITUD PARA CONTRATAR Y SOLVENCIA** A) APTITUD Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para

Era berean, bete beharko dira 2017ko SPKLren 70. artikuluan aipatutako baldintza bereziak, bateragarritasunari buruzkoak.	contratar establecidas en el artículo 74 de la Ley de Contratos del Sector Público. De igual modo deberán cumplirse las condiciones especiales de compatibilidad señaladas en el artículo 70 de la LCSP 2017.
Kontratu erreserbatu bat denez, bakarrik aurkeztu ahal izango dira: • Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lege Orokorraren testu bateginean araututa dauden gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak, Enplegu Zentro Berezien Erregelamendua onartzen duen abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuaren arabera eratu eta erregistratutakoak. • Laneratzeko enpresen araubidea arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako laneratzeko enpresak; dagokien erregistroetan inskribatuta egon beharko dute, aplikatu beharreko araudiaren arabera.	Dado que se trata de un contrato reservado, solo podrán presentarse: • Los Centros Especiales de Empleo de iniciativa social que estén regulados en el texto refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, y constituidos y registrados conforme al Real Decreto 2273/1985, de 4 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de los Centros Especiales de Empleo. • Las empresas de inserción reguladas en la Ley 44/2007, de 13 de diciembre, para la regulación del régimen de empresas de inserción, que deberán estar inscritas en los registros correspondientes conforme a la normativa de aplicación.
Halaber, euren kabuz edo baimendutako pertsona baten ordezkaritzarekin egin ahalko dute horretarako emandako boterearen bidez. Pertsona juridiko baten izenean horren kideren batek parte hartzen duenean, dokumentuen bidez justifikatu beharko du horretarako ahalmena duela. Edonola ere, ordezkari horrek aipatu diren kontratatzeko ezintasunetatik salbuetsita egon beharko du.	Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas.
Enpresaburuek, gainera, kontratu honen xedea den jarduera egiteko edo zerbitzua	Los empresarios y las empresarias deberán contar, asimismo, con la

emateko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute. Espainiakoak ez diren enpresek, Europar Batasunekoek edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duen estatu batekoek, sektore publikoarekin kontratatzeko ahalmena izango dute, baldin eta enpresak ezarrita dauden estatuko legeen arabera gaituta badaude dena delako zerbitzua emateko. Estatu bateko legediak estatu horretan ezarrita dauden enpresei dena delako zerbitzua emateko baimen bereziren bat edo organizazio jakin bateko baimena eskatzen badie, enpresek baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute. Kontratua jarduteko gaitasunik, kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionalik, eskatzen zaien gaikuntza enpresarialik edo profesionalik, beharrezko sailkapenik –aginduzkoa denean– ez duten edo kontratatzeko debekuren bat duten pertsonei adjudikatzen bazaie, adjudikazioa baliogabea izango da 2017ko SPKLren 39.2.a) artikuluarekin bat. B) KAUDIMENA Kontratazio-organoak ezarritako gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte lizitatzaileek, ekonomia- eta finantza-kaudimenari eta gaitasun profesional edo teknikoari dagokienez. _ Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: SPKLren 87. artikuluaren arabera: a) 87.1.b artikulua: erantzukizun zibil orokorreko asegurua eta negozioa ustiatzeko asegurua izatearen egiaztagiria, ezbehar eta biktima bakoitzeko 600.000 euroko estaldurarekin.	habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad o prestación objeto del presente contrato. Tendrán capacidad para contratar las empresas no españolas de Estados miembros de la Unión Europea o de los Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo que, con arreglo a la legislación del Estado en que estén establecidas, se encuentren habilitadas para realizar la prestación de que se trate. Cuando la legislación del Estado en que se encuentren establecidas exija una autorización especial o la pertenencia a una determinada organización para poder prestar en él el servicio de que se trate, deberán acreditar que cumplen este requisito. La adjudicación de contratos a favor de personas que carezcan de la capacidad de obrar, de la solvencia económica, financiera, técnica o profesional; de la habilitación empresarial o profesional cuando sea exigible; de la clasificación, cuando esta proceda o que estén incursas en prohibición de contratar serán nulas en los términos del artículo 39.2.a) de la LCSP 2017. B) SOLVENCIA Los licitadores deberán estar en posesión de las condiciones mínimas de solvencia económica y financiera y técnica o profesional, que se determinen por el órgano de contratación: _ La solvencia económica y financiera: Según artículo 87 LCSP: b) Art. 87.1.b: Justificante de la existencia de un seguro de responsabilidad civil general y de explotación del negocio, con una cobertura de 600.000 euros por siniestro y víctima.

_ Kaudimen teknikoa eta profesionala: SPKLren 90. artikuluaren arabera, 91. artikulua igorriz: a) 90.1.a. art. Azken hiru urteetan kontratuaren xedearen antzeko ezaugarriak dituzten zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, bai aterpetxeen kudeaketari dagokionez (ostatua, erreserbak, etab.), bai gizarte eta hezkuntza arloko eta turismo aktiboko jarduerei dagokienez (pleguan sartuta daude). b) 90.1.b artikulua. Kontratuan parte hartzen duen talde teknikoaren deskripzioa, dagokion curriculum vitaea aurkeztuta, taldea osatzen duen taldearen esperientzia egiaztatuz. Jendeari arreta ematen eta erabiltzaileekin harremanetan jartzen diren langile guztiek euskaraz hitz egin beharko dute. Zerbitzua aurkezten duten pertsonak identifikatu beharko dira, eta haien titulazioa edo euskararen ezagutza-egiaztagiria adierazi beharko da.	_ La solvencia técnica o profesional: Según artículo 90 LCSP, por remisión del artículo 91: a) Art. 90.1.a. Una relación de los principales servicios o trabajos realizados de similares características al objeto del contrato en los tres últimos años tanto en materia de gestión de albergues (alojamiento, reservas, etc…) como en actividades (incluidas en el pliego) socioeducativas y en turismo activo. b) Art. 90.1.b. Una descripción del equipo técnico participante en el contrato acreditándose mediante la presentación del correspondiente currículum vitae la experiencia del equipo integrante. Todo el personal que realice labores de atención al público y se relacione con las personas usuarias deberá hablar euskera. Se deberá identificar a las personas que presenten servicio y señalar su titulación o acreditación de conocimiento de Euskara.
XV. BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO FIDANTZAK Behin-behineko fidantza ez da eskatu. Kontratuaren adjudikaziodunak, hartutako obligazioak betetzea bermatze aldera, behin betiko bermea jarri behar du eta horren zenbatekoa adjudikazio-prezioaren % 10 izango da. Zenbatekoa gehienetan ezartzen den % 5 baino altuagoa da, emakidaren xedea behar bezalako epean eta moduan itzuliko dela bermatu behar delako.	**XV. FIANZA PROVISIONAL Y DEFINITIVA.** No se exige fianza provisional. El/La adjudicatario/a del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas, está obligado/a a constituir una garantía definitiva por la cuantía, equivalente al 10% del importe de adjudicación. Dicho importe, superior al 5% ordinario, se justifica por la necesidad de garantizar la correcta devolución del objeto de concesión en plazo y forma.

Gainera, higiezina behar bezala itzultzeko betebeharra bermatu behar izateak eragiten du, SPKLaren 4. Xedapen Gehiarrian jasotakoaren salbuespen bezala, bermea eskatu behar izatea.	Además, el deber de garantizar la devolución del inmueble, de relevante valor, en debidas condiciones, lleva a tener que depositar fianza, como excepción a lo dispuesto en la Disposición Adicional 4ª de la LCSP.
Aipatu bermea eratzeko epea eskaintza onena aukeratu izanari buruzko jakinarazpenean adierazitakoa izango da (behin-behineko adjudikazioa), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 107. eta 109. artikuluekin bat, eta 108. artikuluan ezarritako bideetako bat erabili ahal izango da hura eratzeko. Eraketa egiaztatzeko, bide elektroniko, informatiko edo telematikoak erabili ahal izango dira. Baldintza hori lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio bete ezean, bere alde egindako adjudikazioak ondoriorik gabe geratuko da.	El plazo para la constitución de la citada garantía será el que se señale en la notificación de la calificación como mejor oferta (adjudicación provisional), según los artículos 107 y 109 de la LCSP, y podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 de la Ley de Contratos del Sector Público. La acreditación de su constitución podrá realizarse por medios electrónicos, informáticos o telemáticos. De no cumplirse este requisito por causas imputables al/a licitador/a, la adjudicación a su favor no surtirá efecto.
Berme hori itzultzea, hala osoa nola partziala, hala badagokio, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan ezarri dena betez burutuko da, baldintza-agiri honetan aipatutako berme-epea igaro ondoren eta adjudikaziodunak kontratuak ezartzen dizkion obligazio guztiak bete ostean.	La devolución de la garantía, tanto total como parcial, en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 de la Ley de Contratos del Sector Público, una vez vencido el plazo de garantía recogido en este Pliego, y cumplidas por el adjudicatario todas sus obligaciones contractuales.
XVI. LEGE BETEBEHARRAK BETETZEA. Kontratistak nahitaez bete behar ditu indarrean dauden lege-xedapenak honako arlo hauetan: lana, Gizarte Segurantza, laneko segurtasun eta higiene eta lan arriskuen prebentzioa, kontratu honen xedea den zerbitzuetan egikaritzeko hartutako langileei dagokienez. Administrazioa erantzukizunetik salbuetsita egongo da, betebehar horiek bete ezean. Era berean, adjudikaziodunak jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta	**XVI. CUMPLIMIENTO DE OBLIGACIONES LEGALES**. El/la contratista está obligado al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social, de seguridad e higiene en el trabajo, y de prevención de riesgos laborales, con respecto al personal que emplee en los servicios objeto de este contrato, quedando la Administración exonerada de responsabilidad por este incumplimiento. Asimismo, el adjudicatario/a cumplirá toda normativa relativa a actividades

arriskutsuei buruzko eta ikuskizun publikoen antolaketari buruzko araudi osoa beteko du, hain zuzen, eta aplikatu beharreko beste araudi batzuk galarazi gabe, honako hauetan xedatutakoa bete beharko du: • 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Ingurumena babestekoa. • 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena. • Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua, Ikuskizun publikoei eta aisialdiko jarduerei buruzko Legearen garapen-erregelamendua onartzen duena. Adjudikaziodunak honako hauek ordaindu beharko ditu: lizitazio-iragarkiak, kontratua formalizatzea, kalte-ordainak aldi baterako okupatzeagatik, baimenak eta zergak.	molestas, insalubres, nocivas y peligrosas y de policía de espectáculos públicos, y, en concreto, y sin perjuicio de otra normativa de aplicación, deberá cumplir lo dispuesto en: • La Ley 3/1998, de 27 de febrero, de protección general del Medio Ambiente • La Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas • El Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas El concesionario/a queda obligado/a al pago de los anuncios de licitación, formalización del contrato, indemnización por ocupaciones temporales, permisos y tributos que procedan.
XVII. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK Adjudikazioaren oinarri gisa erabili beharreko irizpide objektiboak eta dagozkien balorazio-ehunekoak honako hauek dira: **<u>ZUZENEAN EBALUAGARRIAK EZ DIREN EDO BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK: (49 puntu)</u>** **<u>Memoria teknikoa: 49 puntu.</u>** Memoria teknikoa atal hauetan banatu beharko da: 1. Ustiapena garatzeko funtzionamendu-proposamen metodologikoa. 10 puntu Instalazioaren kudeaketa integralaren ustiapena garatzeko proposamena baloratuko da, instalazioak garatu nahi duen	**XVII. CRITERIOS PARA LA ADJUDICACION.** Los criterios objetivos que ha de servir de base para la adjudicación, junto con sus porcentajes de valoración son los siguientes: **<u>CRITERIOS NO AUTOMÁTICAMENTE EVALUABLES O CUYA CUANTIFICACIÓN DEPENDE DE JUICIO DE VALOR: (49 puntos)</u>** **<u>Memoria Técnica: 49 puntos</u>** La Memoria Técnica se deberá dividir en los siguientes apartados: 1. Propuesta metodológica de funcionamiento para el desarrollo de la explotación. 10 puntos Se valorará la propuesta para el desarrollo de la explotación de la gestión integral de la instalación, con descripción de la oferta de

zerbitzu-eskaintza deskribatuz (besteak beste, alderdien arteko harreman koordinaturako prozesuak aipatuz, eta instalaziotik proposatutako irudia eta zerbitzuak zabalduz).	servicios que desde la instalación se pretenda desarrollar (con mención entre otros, a los procesos para la relación coordinada entre las partes, y, difusión de la imagen y servicios propuestos desde la instalación).
2. Zerbitzuak antolatzeko sistema. Baldintza Teknikoen Agiria kontuan hartu behar da.	2. Sistema organizativo de los servicios. Véase el Pliego de Prescripciones Técnicas.
a) Egonaldi-erreserbak kudeatzeko eta erabiltzaileari arreta emateko zerbitzua. 12 puntu Atal hauen garapena baloratuko da: - Plantilla osoa: langile-kopurua, lanbide-kategoria eta kontratazio-mota. - Lanaldiaren deskribapena: ordutegiak eta egutegiak: lan-txandak. - Funtzioak - Erreserba-sistemaren proposamena, teknologia berriak erabiliz eta egutegiarekin okupazioa bistaratuz	a) Servicio de gestión de reservas de estancias y atención al usuario. 12 puntos Se valorará el desarrollo de los siguientes apartados: - Plantilla total: número de empleados, su categoría profesional y tipo de contratación, - Descripción de la jornada laboral: horarios y calendarios: turnos de trabajo. - Funciones - Propuesta de sistema de reservas con empleo de nuevas tecnologías, y con visualización de la ocupación con calendario
b) Ostatu- eta mantenu-zerbitzua. 15 puntu <u>Ostatu-zerbitzua.</u> - Plantilla osoa: langile-kopurua, lanbide-kategoria eta kontratazio-mota. - Lanaldiaren deskribapena: ordutegiak eta egutegiak: lan-txandak. - Funtzioak. - Zerbitzuaren eskaintzaren prezioak, denboraldiaren/ostatu motaren/eguneko/pertsonako, aterpekide-tipologia bakoitzerako. <u>Mantenu-zerbitzua.</u>	b) Servicio de alojamiento y manutención. 15 puntos <u>Servicio de alojamiento</u>. - Plantilla total: número de empleados, su categoría profesional y tipo de contratación, - Descripción de la jornada laboral: horarios y calendarios: turnos de trabajo. - Funciones. - Precios por la oferta del servicio especificados por temporada/tipo de alojamiento/día/persona para cada tipología de alberguista. <u>Servicio de manutención</u>.

